



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1997ko abenduaren 19an

87. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru Lege Proiektuak:**

—Bolondres lanari buruzko Foru Lege proiektua (2. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Abaurrea eta Aezkoako aldeetan gerta daitezkeen hotzaldi eta elurteak direla-eta Nafarroako Gobernuak egin dituen jarduketei buruzko galdera, Jose Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (8. or.).
- Hotzaldi eta elurteei aurre egiteko Nafarroako Gobernuak prestatu duen planari buruzko galdera, Jose Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (9. or.).
- Ganbararen baliabidearen ordainketaren likidazioei buruzko galdera, Andres Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina (10. or.).
- Artaitzko dermioan zenbait mendi-hektarea hondatzeari buruzko galdera, Pedro Uriz Lanz Foru Parlamentari jaunak egina (10. or.).

#### H SAILA:

##### **Bestelako Testu Arau Emaileak:**

- Nafarroako Errepideen Plan Zuzentzailea (1998-2005). Herrilan eta Azpiegitura Batzordeak onetsia (12. or.).

---

**F Saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Bolondres lanari buruzko Foru Lege proiektua**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 1997ko abenduaren 1ean hartutako Erabakiaren bidez, Bolondres lanari buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramailen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

**Lehena.-** Bolondres lanari buruzko Foru Lege proiektua ohiko jardunbidez bideratzea.

**Bigarrena.-** Proiektu hartaz irizpena emateko ahalmena Gizarte Gaietako Batzordearen esku uztea.

**Hirugarrena.-** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **hamabost laneguneko epea irekiko da, 1998ko otsailaren 9ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 126 artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.”

Iruñean, 1997ko abenduaren 9an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **Bolondres lanari buruzko Foru Lege proiektua**

ZIOEN AZALPENA

I

1978an Espainiako Konstituzioa aldarrikatu zenez geroztik, Estatua arduratu da hiritarrek bertako bizitza aktiboan parte har dezaten eta partai-

detza hori, gizarte zibilaren bidez bideraturik, haren oinarriko zutabeetariko bat izan dadin.

Espainiako gizarteak badu urte batzuetatik konpromisoa hartua Ongizatearen Estatua lortzeko. Horretarako, agintaritzaren publikoak politika aktiboak ezarri ditu. Hala ere, hiritarrek gero eta gehiago hartzen dute parte gizarte zibilaren bidez; onartzen da ez dela posible gizartearen helburuak bakarrik agintaritzaren publikotik lortzea eta baztertzeko, administrazioak zenbait aferatan esku har dezala. Horrek denak arindu egin du Ongizatearen Estatutik Ongizatearen Gizartera iragateko bidea.

Nafarroa beti nabarmendu da bere kontzientzia maila handiagatik besteei laguntzeari dago-kionez, bere elkartasunezko ahalegin eskuzabala-ren, bere baliabide ekonomikoaren eta bere bizien bidez. Horren adibide dira urteetan barrena, gogoinarri erlijioso edo sozialengatik, hirugarren munduko bizilagunei beren laguntza eman dieten nafarrak. Horri gaur egun garatzen ari diren herriekiko lankidetzaren deritza.

Egun pertsona eta kausa sozialekiko elkartasunak zabalpen handia lortu du eta gizarte arlo guztiak ukitzen ditu. Nafarroan nabarmen dira gobernuaren kanpoko erakundeetan diharduten bolondresen kopurua eta partikularren eta Nafarroako Gobernuaren eta toki entitateen diru-ekarpenak, gehienbat garatzen ari diren herriak xede dutela.

Kontzientzia-maila sozial horrek bolondres entitateak eta bolondresak berak asko gehitzea eragin du. Horrek komenigarri egiten du haien eskubide eta eginbeharrak lege ezartzea, Volonteupe erakundeak izenpeturiko Europako Bolondresen Gutunarekin bat.

Halaber, elkartasunaren frogaren beharrez du agintaritzaren publikoaren sustengu tekniko eta ekonomikoaren ematera, bolondres lana bultzatzeko, gizarte informatuz, bolondres lanetan diharduten pertsonak prestatuz eta entitateak sustatuz, haien jarduerak ezagutaraziz eta diruz lagunduz.

## II

1997-2000 urteetarako Nafarroako Plan Gerontologikoak ezartzen du beharrezkoa dela Foru Komunitatean bolondres lana legez arautzea. Hala ere, bolondresak aritzen diren arloak asko direnez, komeni da Foru Lege hau hirugarren adinaren edo gizarte zerbitzuen esparruetara ez mugatzea eta orotariko bolondres lanerako egokitzea.

Bolondres Lanari buruzko urtarrilaren 15eko 6/1996 Legea Estatuko edo autonomi erkidegoez gaindiko bolondres jarduketetan egiten den elkartasunezko partaidetzaz arduratzen da. Horrek errespetatu egiten du Nafarroak Foru Komunitatean bolondres lana sustatu eta bultzatzeko duen eskumena.

Foru Lege honen bitartez, herritarrak bolondres jarduketetan parte hartzera, Nafarroako Administrazio Publikoek sustengaturik, bultzatzeko behar diren bideak ezartzen dira. Bolondresek partaide direneko erakundeekiko dituzten eskubide eta eginbeharrak funtsean arautzen dira eta egitarauen kalitatearen hobekuntza sustatzen, agintaritza publikoen laguntza tekniko eta ekonomikoaren bidez, bolondresek zerbitzua ematen dieten pertsona eta kausen onerako.

Foru Legean aurreikusten diren jarduketak bat datoz Europako Kontseiluko ministroen Komiteak estatu kontseilukideei bolondres lanari buruz eman zien Gomendioarekin eta Estatuko eta Autonomia Erkidegoetako administrazioek berriki onetsiriko 1997-2000 lau urteetarako Estatuko Bolondres Lanerako Planean sentikortu, sustatu, lagundu eta koordinatzeko ezarritako programarik modernoekin.

Bolondresen eskubide eta eginbeharrei dago kienez, nazioartean eta Estatuan berean tradizio luzea dago, bai Nazio Batuen eta Europako Kontseiluaren ebazpenetan, bai Estatuko eta Autonomia Erkidegoetako legeetan gauzatzen dena.

## III

Foru Lege honek arauzko testuetan eta literaturan agertu ohi diren ezaugarriekin definitzen du bolondres lana, hots, elkartasun, doakotasun, askatasun eta elkartegintzarekin. Ez da bolondres lantzat jotzen gauzazko sarien truk edo beharturik egiten dena.

Gizabanakoen edo noizbehinkako elkartasunezko jarduketak ere ez dira Foru Lege honetan arautzen, besteak bezain goresgarriak badira ere, bolondres entitate baten bidez egiten ez baitira. Salbuespen hori 1990eko Bolondres Lanari buruz-

ko Aldarrikapen Unibertsalarekin bat dator eta gure herrian bolondres lanari buruz egin diren arau guztietan agertzen da.

Ulertzen da bolondresek erantzukizunez eta etenik gabe hartzen dutela konpromisoa. Horregatik sartzen da Foru Lege honetan bolondres entitateei atxikitzeke erabakia agiri baten bidez gauzatu beharra, non bolondresaren eskubideak eta haren jarduketaren iraupena eta tinkotasuna agertuko baitira. Jarduera hori uzten bada, pentsatzekoa denez, ez dago inolako zigorrik bolondresarendako, axolagabekeria horregatik kritika morala besterik ez du merezi eta.

Kalitateatea gero eta gehiago hobetzea bolondres entitateen egitarau eta jardueren ezaugarririk garrantzitsuenetarikoa da eta Foru Lege honetan agertzen da. Bolondresaren elkartasunaren xede den pertsonak eskubidea du zerbitzu hori segidaren eta kalitatearen bermerik handienarekin hartzeko. Horregatik, bolondres entitateak, Administrazio Publikoen laguntzaz, arduratuko dira bolondresek horretarako behar duten prestakuntza har dezaten.

Bolondres lana iradokitzen duten hastapenak altruismoan eta parte hartzeko eta elkartzeko askatasunean oinarritzen dira. Horrek esan nahi du administrazioak ahalik eta gutxien hartu behar duela esku. Hori dela eta, errolda gisa, Bolondres Entitateen Erregistroa ezartzea erabaki da. Hori ez da haien nortasun juridikoaren eratailela izan, legeria zibilean oinarritzen baita.

Gizakien arteko elkartasunezko lan altruista horren aitortpena Nafarroako bolondresaren aipamena ematean gauzatuko da urtero. Horrek, gainera, bolondres lana ezagutarazteko eta horrela bultzatzeko balioko du.

Azkenik, Foru Lege honetan bolondres laneko alorrean eskudun diren Foru Administrazioko departamentuen koordinazioa arautzen da, politika amankomuna eskaintzeko eta sustapena bultzatzeko eta Nafarroako Bolondres Lanerako Kontseilua sortzen da, esku hartzen duten pertsona eta entitateen partaidetzarako bilgune gisa.

## I. KAPITULUA

**Xedapen orokorrak. Xedea eta definizioak**

**1. artikulua.** Foru Lege honen xedea herritarrak bolondres lanetan parte hartzera bultzatzea da, kemenez, askatasunez, elkartasunez, altruismoz eta erantzukizunez, edozein titulartasunetako irabazteko asmorik gabeko erakundeen bidez, Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan izatera horretako egitarau edo jarduera etengabeak burutzen badituzte, eta bolondresen, bolondres

entitateen eta Nafarroako Administrazio Publikoen artean harremanak ezartzea.

**2. artikulua.** 1. Foru Lege honen ondorioetarako, bolondres lantzat jotzen da askatasunez eta altruismoz, gizakien arteko elkartasuna xede dutela, pertsoneri edo komunitateari zerbitzuak emateko, irabazteko asmorik gabeko entitateetan antolatzen diren pertsonen gizarte portaera.

2. Espreski salbuesten dira edozein lan harremanen eta eginbehar pertsonal edo juridikoren ondorioz, famili zioengatik edo adiskidetasunagatik ematen diren jarduerak oro, baita ordainduriko lanaren ordezkioak direnak eta noizbehinkakoak, segidariak eta egitaraurik gabekak ere.

3. Hurrengo hatsapenak begiratzuz beteko dira bolondres lanaren ondoriozko jarduketak: bereizkeriarik eza, elkartauna, kalitatea eta irabazteko asmorik eza.

Jarduketok burutzen dituzten entitateek aukatzeko askatasuna eta jarduteko autonomia izango dituzte botere publikoekiko, erabat errespetatuz indarreko legeak eta gizartearen aurrean duten erantzukizuna.

**3. artikulua.** Bolondrestzat hartzen da herritarrendako eta gizartearendako jarduerak egiteko irabazteko asmorik gabeko erakunde batean sartzeko pertsona fisiko oro. Jarduera horiek aurreko artikuluan zehazten den bolondres lanaren kontzeptuaren barruan egon behar dute.

**4. artikulua.** 1. Bolondres entitateak lege osaturik dauden pertsona juridikoak dira, irabazteko asmorik gabeko gizarte egitarau edo jarduerak, pertsonen edo gizarte taldeen onerako, egiten dituztenak, horretarako gehienbat bolondresak badarabiltzate langiletako.

2. Bolondres entitateei lan eragiten dieten egitarauen alorrak hauexek dira: gizarte zerbitzuak, hezkuntza, kultura, zientzia, aisia, kirola, osasuna, ingurugiroaren defentsa, garapenerako lankidetzak, babes zibila, ekonomiaren sustapena, lanartzea eta lan integrazioa, elkartegintza, udal interesak, bolondres lanaren sustapena eta, oro har, bolondresen lanaren bidez burutzen diren eta Foru Lege honetan xedaturikoarekin bat datozen egitarauak burutzen direneko alorrak.

## II. KAPITULUA Bolondresak

**5. artikulua.** Bolondres entitateetan sartzeko diren bolondresen eskubide hauek dituzte:

1. Pertsonari berari dagozkionak:

a) Bolondres lanetan onartuak izatea eta jardueretan inolako bereizkeriarik gabe tratatuak izatea, askatasuna, intimitatea eta sinesmenak errespetaturik.

b) Entitatearen antolamenduan kemenez parte hartzea, egitarauen prestakuntza, diseinu, exekuzio eta ebaluazioarekin lagunduz, bere lehentasun eta gaitasunen arabera, aplikatzeko estatutu edo arauak errespetatuz.

c) Entitatearen helburu eta izaerarekin zerikusirik ez duten eginkizunik manatuak ez izatea.

d) Justifikatzen duten zioak daudenean, entitatearen ahalbideen arabera, manaturiko egitarauaren aldaketa lortzea.

e) Lankidetzaren gizarte balioagatik errespetua eta eskerrona lortzea eta egitarauetan parte hartu duela frogatzen duen ziurtagiria jasotzea.

f) Bolondres izateari askatasun osoz uztea.

2. Informazioari eta prestakuntzari dagokienez:

a) Parte hartzen duteneko entitatearen helburu, antolamendu, funtzionamendu eta egoera ekonomikoaz informatuak izatea.

b) Manatzen zaizkien eginkizunetan aritzeko prestatuak, orientatuak eta lagunduak izatea, garatzen duten bolondres lana eten gabe hobetzea lortzeko.

3. Gauzakeri dagokienez:

a) Beren lanean behar bezalako segurtasun eta higiene egoeran aritzea, haren izaera eta ezaugarrien arabera.

b) Bolondres lanaren zuzeneko ondorioak diren istripu eta gaisotasun arriskuen kontra aseguratuak izatea, ezartzen diren ezaugarriekin eta ezartzen diren kapital aseguratuak.

c) Manaturiko eginkizunean aritzeko behar dituzten gauzako baliabideez hornituak izatea.

d) Beren lanean aritzeko behar duten nortasun agiria lortzea eta agintariak eta, oro har, gizarteak hala aitortuak izatea.

e) Bolondres gisa beren lankidetzak eskaintzen duten ekitaldietan askatasunez sartzeko.

f) Beren lanetan izaniko gastuak ordainduak izatea.

**6. artikulua.** Bolondresen, bolondres entitateetako kideak diren aldetik, eginbehar hauek dituzte:

a) Beren zerbitzuak beren jardueraren xede diren pertsonetara inolako bereizkeriarik gabe egi-

tea, haien duintasuna, askatasuna, intimitatea eta sinesmenak errespetatuz.

b) Beren lana ahalik eta hobekien egitea, erakundearen sartzeko harturiko konpromisoari atxikiz, haren helburu, xede eta arauteria eta hartzen dituzten jarraibideak onartuz, erakundearen ikurak eta agiriak behar bezala erabiltzea, eta erakundearen eskura jartzen dituen gauzazko baliabideak errespetatzea.

c) Behar denean, bolondres lanean hartu eta ezaguturiko informazioaren isilpekotasuna gordezea.

d) Beren lanagatik edozein gauzazko sariri uko egitea.

e) Proposatzen zaien prestakuntza kemenez parte hartzea, bolondres lanaren kalitatea hobetuko badu.

### III. KAPITULUA

#### Bolondres entitateak. Erregistroa

**7. artikulua.** 1. Bolondresak erakundeetan sartzeko idatziz formalizatuko da, behar den erabaki edo konpromisoa harturik, harremana altruista dela ezartzeaz gain, bederen eduki hau ere izan behar duena:

a) Sartzen deneko erakunde eta egitarauaren deskripzio, helburu eta xedeak.

b) Bi aldeei dagozkien eskubide eta eginbeharrak, Foru Lege honetan xedaturikoari dagokionez.

c) Bolondresak konpromisoa hartzen dueneko eginkizun, jarduera, iraupen eta lanaldiaren edukia, baita konpromiso hori hausteko zio eta erak ere.

d) Eginkizunetan aritzeko behar den prestakuntza prozesua.

2. Kidetze agiria erakundearen artxibatuko da eta kopia bat luzatuko da bolondresarendako.

**8. artikulua.** 1. Bolondres erakundeek hastan demokratikoetara egokituko dute beren antolamendua eta funtzionamendua eta Lege honetan eta gainerako aplikazio arauetan xedaturikoa beteko, bolondres lana iradokitzen duten hastapeak eta bolondresen eskubideak guztiz errespetatuz.

2. Bolondres entitateek estatutu bat onetsiko dute, bolondresetik harramanak arautuko dituenak.

**9. artikulua.** 1. Bolondres entitate orok Bolondres Entitateen Erregistroan eman beharko du

izena. Izen emate hori ofizioz izapidatuko da bolondres entitateak Nafarroako Gobernuaren departamentuaren menpeko erregistroan agindu bezala inskribatua izatea eskatu eta bertan bolondres entitate gisa erregistratzeko nahia adierazten duenean.

2. Inskribatuak izateko, bolondres entitateek Foru Lege honetan xedaturikoa bete beharko dute eta, zehazki, hurrengo artikuluan xedaturikoa.

3. Erregistroko baja entitateak eskaturik egiten da edo, ofizioz, nortasun juridikoa iraungitzen denean edo Foru Lege honetan eta hori garatzen duen arauterian xedaturikoa larriki bete ez dela egiaztatzen denean.

4. Erregelamendu bidez, erregistroaren antolamendua garatuko da eta xedatuko zer departamentuari atxikiko zaion eta zer prozedura administratibo erabiliko den horretan sartzeko.

**10. artikulua.** 1. Bolondres entitateek legez osaturik egon beharko dute eta nortasun juridikoz horniturik, entitateak garatzen dituen egitarauetan parte hartzen duten bolondresen eskubideak errespetatu eta horiei erantzun positiboa eman behar diete, eta haien elkartasuna eta laguntza behar dituzten pertsona eta taldeen aurrean inongo bereizkeriarik gabe aritu.

2. Derrigorrezkoa da aseguru-poliza izenpekoa, bolondresek bolondres lanean dihardutenean istripu eta eritasun arriskuei aurre egiteko, eta beren jardueraren ondorioz eragin dezaketen kalteagatik hirugarrenen aurrean erantzukizuna hartzeko.

3. Bolondresen alta eta baje liburua eduki beharko dute, non horiek sarturik daudeneko programa eta hitzarturiko lanaldia agertuko baitira.

4. Bolondres entitateek aitortu egiten dituzte beren eginkizunetan aritzean izaniko sektore publikoaren eta pribatuaren laguntzak.

### IV. KAPITULUA

#### Bolondres lanaren sustapena

**11. artikulua.** Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Publikoek bolondres lana eta elkartasuna sustatuko dituzte gizarte zibilaren baitan, informazio ekintzen, bolondres lana zabaltzeko eta aitortzeko ekinaldien, pertsonen partaidetzaren eta hiritarren laguntza ekonomiko eta sozialaren sustapenaren, jarduketan kalitatea hobetzeko bolondresen prestakuntzaren eta, kasuan kasuko programetan, bolondres entitateendako laguntza teknikoaren bidez. Azkeneko hori, bai gauzazko baliabideak, bai administrazio publikoetako langileak lanaldi osoan edo ez osoan aldi baterako

utziz, horien beharra aski den moduan frogatzen bada.

**12. artikulua.** Bolondresak askatasunez sartzan ahalko dira parte hartzen duteneko entitateak ofizialki bolondres jarduera bat programaturik daukan ekitaldi eta tokietan eta erregelamendu bidez ezartzen diren hobari edo diru-murrizketak gozatzan ahalko dituzte.

**13. artikulua.** 1. Nafarroako Foru Komunitateak bolondresendako egitarau eta jardueri eutsiko die diruz. Horretarako behar diren kontusailak kontsignatuko dira aurrekontuetan.

Kasuan kasuko deialdi publikoen bidez ematen dira dirulaguntzak eta bolondres entitateekin hitzarmenak edo itunak izenpetuko dira izaniko gastuak ordaintzeko. Hori dena indarra duen legeriarekin bat.

2. Laguntza teknikorako eta bestelako sustengu berezietarako fondo horiek eskuratzeko, bolondres entitateek Bolondres Entitateen Erregistroan inskribaturik egon beharko dute eta adierazi, zer egitarautarako eskatzen duten laguntza, espreski hau aipatuz: izena, deskripzioa, xedeak, parte hartzen duten bolondresei eska dakiekeen prestakuntza, iraupena, onuradunak, bolondres kopurua, lanaldia eta manaturiko eginkizunak, parte hartzen duten soldatapeko langileak, hala bada, egitarauaren arduraduna, aurrekontua eta finantzabidearen iturriak eta barne ebaluazioaren sistema.

3. Erregelamendu bidez, laguntza horiek eskuratzeko administrazio betebeharrak garatzen ahalko dira eta erregistroan izena emaniko entitate bakoitzaren urtean urteko memoriaren aurkezpena arautzen, aitorturiko egitarauak eta ebaluazioa zehaztuz.

**14. artikulua.** Nafarroako Gobernuak urtero Nafarroako bolondresaren aipamena egiten du bolondres lanean jarduteagatik, bolondres jarduerako gizarte ereduagatik edo bolondres jarduketek oihartzun berezia lortzeagatik nabarmendua den pertsona fisiko edo juridikoaren alde.

Erregelamendu bidez ezarriko dira horretarako betebeharrak zehatzak.

## V. KAPITULUA

### Nafarroako Administrazio Publikoak

**15. artikulua.** 1. Bolondres Lanerako Departamentuarterko Batzordea sortzen da, bolondres laneko egitarauarekin loturiko departamentuetako zuzendari nagusiek osatuko dutena.

Haren lehendakaritza eta haren idazkaritza Bolondres Entitateen Erregistroa kudeatzen duen departamentuari egokituko zaizkio.

2. Hona hemen batzordearen eginkizunak:

a) Bolondres lana bultzatzeko politika amankomuna ezartzea.

b) Departamentu guztien plangintza koordinatu eta bultzatzea, jarduketak gizartearen atalik premiatsuenen alde bideratu eta entitate berrien sorrera sustatzeko.

c) Departamentu guztiek burutuko dituzten ebaluazio eta kontrol jarduketan berri izatea.

Urtero, bolondres entitateekiko dirulaguntza eta itunak koordinatuko ditu, jarduketa osagarriak lortu eta errepikapenak saihesteko.

Halaber, Nafarroako bolondresen gidaliburua argitaratuko du urtero. Bertan erregistraturiko entitate guztiak, haiek eginiko programak eta gainerako datu esanguratsuak agertuko dira. Ahalik eta gehien zabalduko da.

3. Batzordea abian jartzeko eta informazio eta prestakuntza jarduketa amankomunak burutzeko erregistroaz arduratzen den departamentuko aurrekontuan kontusail bat kontsignatuko da.

**16. artikulua.** 1. Nafarroako Bolondres Lanerako Kontseilua parte hartzeko organo aholku emaile gisa sortzen da. Foru Komunitateko Administrazioak, bolondresendako egitarauak dauzkaten Nafarroako udalek, bolondres entitateek eta bolondresek berek osatuko dute.

2. Ordezkatuak dauden departamentu eta udalen dirulaguntza eta itunen deialdien, bolondres lana bultzatzeko politika amankomunaren eta bolondres lanaren urteroko gidaliburuaren berri jakinen du eta jakinaraziko.

Bolondres lanarekin zerikusirik duten eta interesgarritzat jotzen diren jarduketa guztiak sustatuko ditu.

3. Bolondres Lanerako Departamentuarterko Batzordea eta Nafarroako Bolondres Lanerako Kontseilua erregelamendu bidez garatuko dira, haien kideak eta haien eginkizunak adieraziko direla.

**17. artikulua.** Foru Komunitateko Administrazioari Departamentuek, bolondres lanarekin zerikusirik duten jardueretan, dagozkien eginkizunak burutuko dituzte, bereziki plangintza eta ikuskaritza.

**18. artikulua.** Nafarroako Toki Entitateek, soil-soilik beren esparruan garatzen den plangintza,

antolamendu eta ikuskaritza eskumenen barruan, Foru Lege honetan eta hori garatzeko arauetan xedaturikoa betetzera premia beharko dituzte bolondres entitateak eta urtero Nafarroako Bolondres Lanerako Kontseiluko idazkaritzara diruz lagundu edo hitzarturiko ekitaldi eta egitarauak igorriko dituzte, Foru Lege honetan ezartzen den zabalpenarekin.

#### **Xedapen gehigarria**

Nafarroako Gobernuak, gehienez ere Foru Lege honek indarra hartu eta urtebeteko epearen barrenean, Bolondres Entitateen Erregistroko erregelamendua onartuko du, eta laguntza ekonomikoak, entitateendako laguntza teknikoak eta Nafarroa-

ko Bolondresaren urteroko aipamena eskuratzeko bidea, eta Bolondres Laneko Departamentuarterko Batzordeko eta Nafarroako Bolondres Lanerako Kontseiluko erregelamenduak ere bai.

#### **Xedapen iragankorra**

Nafarroako Gobernuak Bolondres Entitateen Erregistroa arautu arte, horiek segituko dute arloan eskudun diren departamentuen menpeko erregistroan inskribatzen.

#### **Azken xedapena**

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

---

**F Saila:**  
**GALDERAK**

---

**Abaurrea eta Aezkoako aldeetan gerta daitezkeen hotzaldi eta elurteak direla-eta Nafarroako Gobernuak egin dituen jarduketei buruzko galdera**

*JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko abenduaren 16an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Abaurrea eta Aezkoako aldeetan gerta daitezkeen hotzaldi eta elurteak direla-eta Nafarroako Gobernuak egin dituen jarduketei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegi-leak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko abenduaren 17an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Joan den urtarrilaren 3, 4 eta 5ean izan ziren elurte haundiek eragin bereziki bortitza izan zuten Abaurregainen eta Aezkoako Ibarrean, Agoizko Kontserbazio Barrutiaren ardurapean dauden zona altuez gain (Ibañeta, Erronkari...).

Inguruan eskura zeuden bitarteko guztiak erabili ziren arren, sortu ziren beharrezko erantzuteko banatu behar izan zirenez gero, aipatu zonetak hainbat errepide (Eiaurrietatik Abaurregainerako zatia kasu) atzerapen haundiz berreskuratu ziren trafikorako, aurreko urteetan ohikotzat jo zitekeena-ekin alderatuz.

Egun haietan Abaurregaina eta Aezkoako biztanleek jasan zuten eta elektrizitatearen etendura hedatu batek larriagotu zuen inkomunikazio-egoeraren berri jakin nahi izan genuelarik, Nafarroako

Gobernuak azaldu zuen eskura zeuden ekipo berekiak, kasu zehatz horretan, hauexek izan zirela: elurra kentzeko lau ekipo (kamioiak falkarekin edo xaflarekin) eta lau kalapatxa, hala nola elurra kentzeko kontrataturiko beste hiru ekipo.

Inkomunikazio-egoera bukatutakoan, Lehendakaritza eta Barne Kontseilariak Abaurregaineko alkatearekin bilera bat izan zuen, eta Nafarroako Gobernuak konpromisoa hartu zuen bitartekoz hornitzeko, horrelako egoerak berriro gerta ez zitezen.

Abaurregaineko eta Aezkoako zonetan hotz-eta elur-erauntsiei erantzuteko Nafarroako Gobernuak buruturiko jarduketei dagokienez, honako galdera hauei erantzutea eskatzen da:

1.- Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du hobekuntzarik egitea Abaurregainen jarduten duten Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Errepide Kontserbazioaren eta Babes Zibileko (SOS Nafarroa), Foruzaingoko, Suhiltzaileen Partzuergoaren eta Goardia Zibilaren zerbitzuen koordinazioan?

2.- Zer baldintzatan eta zer nolako aurreikuspenekin burutzen da neguko errepide-egoeraren, horniduren eta komunikazioen kontrol eta jarraipena Abaurregaina eta Aezkoako inguruetan?

3.- Nafarroako Gobernuak hobetu al ditu baliabide berekiak, joan den neguan eskura zeudenekin alderatuz gero, Agoizko Kontserbazio Zentroko giza eta material-ekipoak berrituz zein prestatuz? Abaurregainetik eta Aezkoatik hurbil dauden beste Kontserbazio Zentroetatik bitartekoak bidaltzea aurreikusten al du? Zeintzutatik?

Iruñean, 1997ko abenduaren 9an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas



## Hotzaldi eta elurteei aurre egiteko Nafarroako Gobernuak prestatu duen planari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko abenduaren 16an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak hotzaldi eta elurteei aurre egiteko Nafarroako Gobernuak prestatu duen planari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko abenduaren 17an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Joan den neguko lehen elurteak eragin nabaria izan zuen gure Komunitatearen iparraldeko erdian; horren ondorioz, 1997ko urtarrilaren 3an Izabatik Frantziarako errepidea 12. kilometrotik aurrera trafikorako itxi egin zen, eta kamioi eta trailerren trafikorako itxita geratu ziren Belate, Azpirotz, Erreniega, Erro, Mezkitz eta Ibañetako mendateak, sare nagusian, eta Lizarraga, Urbasa, Etxauri, Loiti, Meano, Abaurre, Lazar, Las Coronas, Egozkue, Ezkurra eta Uitzikoak bigarren mailako sarean. Horieta guztietan ibiltzeko baimena izan zuten turismoek, nahiz eta hori zaila izan, kateak erabiltzea beharrezkoa izan baitzen.

Iruña-Donostia Autobiak egoera berbera pairatu zuen, eta, ondorioz, trafiko astuna N-1 Errepidetik (Sakanako Autobia - Etxegarateko mendatea) desbideratu behar izan zen, trafiko-baldintzak hobeak zirelako han, eta kateak zituzten ibilgailuak azkarrago igarotzea ahalbidetzen zuelako.

Hotz- eta elur-erauntsiak hasi direla-eta gure herriko zentroaldeko errepideetan izandako gertakariak, guztiok ezagutzen ditugun horiek, agerian utzi dute hotz- eta elur-erauntsiei aurreikuspen-

gabezia eta deskoordinazioz ezin zaiela aurre egin.

Horregatik beharrezkoa da gure Komunitatean horrelako egoerei aurre egiteko beharrezkoak diren giza eta material-baliabide guztiak eskura eta koordinatuta edukitzea.

Hotz- eta elur-erauntsiei aurre egiteko Nafarroako Gobernuak aurreikusiriko Jarduketa Planari dagokionez, honako galdera hauei erantzutea eskatzen da:

1.- Nafarroako Gobernuak prestatu al du Jarduketa Planik elurte haundiei edo hotz-erauntsiei aurre egiteko, oraingo negualdi honetarako? Nola-koa da, laburbildurik, Plan honen funtzionamendua?

2.- Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du hobekuntzarik Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Kontserbazio eta Teknologia Kudeaketako zerbitzuaren eta Babes Zibileko (SOS Nafarroa), Foruzingoko, Suhiltzaileen Partzuergoaren eta Goardia Zibilaren zerbitzuen koordinazioan?

3.- Zer baldintzatan eta zer nolako aurreikuspenekin abiarazi da neguko errepide-egoeraren kontrol eta jarraipenerako alerta-sistema?

4.- Nafarroako Gobernuak hobetu al ditu baliabide berekiak, joan den neguan eskura zeudenekin alderatuz gero, gure Komunitatean zehar barreiatutako Kontserbazio Zentro ezberdinetako giza eta material- ekipoak berrituz zein prestatuz? Zein zonatan hobetu dira ekipo horiek?

5.- Eskura dauden langileak eta bitartekoak nola daude banatuta zonetan? Horrelako egoerei aurre egiteko beharrezkoa den material guztia biltzea xedatu al du Nafarroako Gobernuak?

6.- Eguraldi txarreko egoeretan gidarien zehar tasuna areagotzera bideraturiko informazio-kanpainarik burutzeko asmorik ba al du Nafarroako Gobernuak?

Iruñean, 1997ko abenduaren 9an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

## Ganbararen baliabidearen ordainketaren likidazioei buruzko galdera

ANDRES BASTERRA LAYANA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko abenduaren 16an egindako bilkuran, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak Ganbararen baliabidearen ordainketaren likidazioei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko abenduaren 17an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

Andrés Basterra Layanak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Foru Komunitateko nekazari eta abeltzainak likidazioak ari dira jasotzen ganbararen baliabidea

ordaintzeko eskariarekin batera, Merkataritza Ganbararen funtzionamendu-gastuetarako.

Apirilaren 4ko 6/95 Foru Legeak, ganbararen baliabidea arautzen duenak, ordainketa horretatik at utzi ditu lehen sektoreko jarduerak, hala nola nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza.

Nafarroako nekazari eta abeltzainei eskatu zaiena da 1993ko enpresa-etekin garbien milako lau gehi berandutze-korrituak eta 1994koetako milako bi gehi berandutze-korrituak. Horiek horrela, hauxe jakin nahi da:

1.- Nafarroako Gobernuak ba al du goian esandako guztiaren berri?

2.- Zer neurri hartzeko asmoa du Merkataritza Ganbarak nekazari eta abeltzainei egin dien akatsa konpontzeko?

Iruñean, 1997ko abenduaren 9an

Foru Parlamentaria: Andrés Basterra Layana

## Artaitzko dermioan zenbait mendi-hektarea hondatzeari buruzko galdera

PEDRO URIZ LANZ FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko abenduaren 16an egindako bilkuran, Pedro Uriz Lanz Foru Parlamentari jaunak Artaitzko dermioan zenbait mendi-hektarea hondatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko abenduaren 17an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

Pedro Uriz Lanzek, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Oraintsu salatu dute Ingurugiro Departamentuaren aurrean Mendi Zerbitzuko teknikariek 78 hektarea mendi hondatu dituztela Artaitzko dermioan.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi da:

1.- Nafarroako Gobernuak berak hondatu al ditu 78 hektarea mendi horiek Artaitzen? Zertan da hondamendia?

2.- Ingurugiro Departamentuak ba al daki ez dela komeni mendi-hegaletako ildoak aldaparen arabera egitea, higadura handia eragiten dutelako?

3.- Zer jarduketa aurreikusi ditu Ingurugiro Departamentuak ingurugiro-eragin larri horri aurre egiteko?

4.- Nafarroako Gobernuak ba al du hondatutako landareen ordez bertakoak jartzeko asmorik?

Iruñean, 1997ko abenduaren 10ean

Foru Parlamentaria: Pedro Uriz Lanz



---

**H Saila:**  
**BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK**

---

## Nafarroako Errepideen Plan Zuzentzailea (1998-2005)

### *HERRILAN ETA AZPIEGITURA BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Herrilan eta Azpiegitura Batzordeak, 1997ko azaroaren 26an eta 28an eta abenduaren 2an egindako bilkuretan, Nafarroako Errepideen Plan Zuzentzailea (1998-2005) onetsi du eta hurrengo erabaki-proposamenak erantsi dizkio:

#### 1. 7. Kapitulu berria.

7. Nafarroako errepide-sareko ardatz estrategikoak.

##### 7.1. Definizioa.

Nafarroako Errepideen Plan Zuzentzaileak hurrengo helburua du, besteak beste: Nafarroako errepide sarearen ardatz estrategikoak ezartzea.

Aipatu ardatz estrategikoek bermatu, hobetu eta bultzatu egin behar dute Nafarroa Espainiarekin eta Europarekin lotzea.

Aipatu ardatz estrategikoek, gainera, ahalbidetu egin behar dute Nafarroako lurraldearen garapen berezia, korridoreek sortuko dituzten sinergien bitartez.

Nafarroako errepide-sarearen ardatz estrategikotzat hartu dira, haren lurraldetik iragaten direnez gain, Nafarroa gizarte- eta ekonomia- interesgune handienekin lotzen dutenak.

Aurrekoa oinarritzat harturik, hurrengo korridoreak definitu dira Nafarroako errepide sarearen ardatz estrategikotzat:

a) Hurbilen diren probintzia eta autonomia erki-degoetako hiriburuekiko loturak.

b) Pirinioekiko lotura. Pirinioak-Mediterranea zeharkako ardatza.

c) Penintsulako erdialdearekiko lotura.

- Madril-Tutera autopista.

d) Ebroko ardatza.

- Bilbo-Logroño-Tutera-Zaragoza-Lleida.

e) Europako lotura

- A-15 autopista. Iruñea-Donostia-Irun.

- Iruñetik Frantziara Belatetik (N-121-A eta N-121-B)

- Frantziako autopista, Pirinioak zeharkatuz.

7.2. Zehaztasunak eta garapena.

Nafarroako errepide sarearen ardatz estrategikoak osatzen dituzten korridore guztien bokazioak epe ertain eta luzean autobia/autopista bihurtzea behar du (Iruñetik Frantziara Belatetik doan N-121 errepidea kenduta).

Beraz, Errepideen Plan Zuzentzaile honen xede behar du aipatu helburua bereganatu, abiarazi eta bultzatzeak, bestelako gorabeheren gaitetik.

Hori oinarritzat harturik, hurrengoak ditugu sare estrategikoaren ardatzen egungo egoera eta etorkizuneko aukerak:

a) Hurbileko probintzia hiriburuekiko loturak:

- Iruñea-Zaragoza: N-121 eta N-232 errepideak eta A-15 eta A-68 autopistak dira gaur egun, paraleloan.

Beraz, azpiegitura horien multzoa nahikotzat jo beharko litzateke epe luzera aipatu korridoreak jasaten duen trafikorako.

Botere publikoek neurriak hartu beharko dituzte autopistak ahalik eta gehien erabil daitezen, paraleloan doazen errepideen zama arintzeko.

Errepideetarako konponketa eta zuzenketa zehatzak aurreikusi beharko dira, baina ez dira baztertu behar munta handiagoko jarduketak errepideok erabilgarritasuna galtzen badute, jasaten duten zama handiegia dela-eta.

- Iruñetik Logroñora: Gutxien garatu den ardatza dugu, gaur egungo zehaztasunak kontuan hartuz gero.

Edukiera handiko errepide bihurtzea bultzatu behar da Plan Zuzentzailean zehar.

Iruñea-Lizarra-Logroño korridorea indartzeko balio behar du.

- Gasteiz, Bilbo eta Donostiarekiko lotura: ondo garatuta daude loturok (1998tik aurrera), erabat bihurturik autobia edo autopista.

b) Pirinioekiko lotura. Pirinioak-Mediterranea zeharkako ardatza.

- Jaca-Huesca-Lleida lotura: Nafarroako Errepideen Plan Zuzentzaileak aurreikusi egin behar du ardatz hori edukiera handiko errepide bihurtzea, bi helbururekin: Nafarroako erdialdea eta Pirinioetako ibarrak hobeto lotzea eta Iruñetik Mediterranea doan ardatzaren lehen zatia egitea.

Horretarako, Sustapen Ministerioan kudeatu eta bultzatuko dira haren eskumeneko diren errepide-zatien garapena.

c) Penintsulako erdialdearekiko lotura.

- Madril-Tutera autopista: Nafarroako Gobernuak ahalik eta gehien bultzatu behar ditu Sustapen Ministerioaren aurreko ahaleginak Madril-Tutera autopista garatzeko, hurrengo zatien arabera: Madril-Guadalajara (bidesariko autopista berria), Guadalajara-Medinaceli (egungo Aragoiko autobia) eta Medinaceli-Tutera (bidesariko autopista berria).

Ardatz hori interes eta lehentasun handienekotzat jotzen da Nafarroa eta Espainia lotzeko, eta Lisboa-Madril-Tutera-Iruña-Frantzia errepidetza handiaren baitan dagoela jotzen da.

Helburu hori zehazteko, Gaztela eta Leongo eta Errioxako Autonomia Erkidegoekiko jarduketak koordinatu behar dira, komunikabide berri horrek guztiei egingo dielako mesede.

Madril-Tutera autopistari lehentasun osoa eman behar zaio Nafarroa penintsulako erdialdearekin lotzeko, Portugalekin lotzeko eta Estatuko erdialde-mendebaldeak Europarekin lotzeko, Nafarroan zehar.

d) Ebroko ardatza.

- Bilbo-Logroño-Tutera-Zaragoza-Lleida. Ardatz horrek, Nafarroako lurraldetik diraganean, errepidea (N-232) eta autopista (A-68) ditu, paraleloan.

N-232 errepideak egun duen trafiko-dentsitatea oso handia da, garraio astunari dagokionean, batez ere.

Botere publikoek neurri egokiak garatuko dituzte autopista gehiago erabil dadin, errepideko trafikoa arinduz.

Hartutako neurriak nahikoa ez badira 1998aren bukaerarako, Nafarroako Gobernuak beharrezko neurriak erabiliko ditu N-232 errepideari erabilgarritasun egokia emateko, Castejón-Cortes zatian trafiko arina eta azkarra ahalbidetzearren.

e) Europako loturak.

- A-15 autopista/autobia. Iruñea-Donostia-Irun. Ondo garatuta dago eta ez du jarduketa gehiagorik behar Nafarroako lurraldean. Hala ere, trafikopilaketa handia antzeman da N-lekin bat egiten duen gunean, Andoain-Donostian.

- Iruñetik Frantziara Belatetik (N-121-A eta N-121-B). Errepideen Plan Zuzentzailearen baitan, beharrezko jarduketak burutu beharko dira aipatu ardatza edukiera handiko errepidetzat hartzeko, Frantziako irteera dezente hobetuz bai Dantxari-neatik, bai Otsondotik.

- Frantziako autopista, Pirinioak zeharkatuz. Pirinioen mendebaldean, Behobian, dagoen nazioarteko pasabide bakarrak egun jasaten duen pilaketak Frantziako, Nafarroako eta Espainiako agintarien arteko elkarlana bultzatu beharko luke, Iruñetik-Frantziara, Pirinioak zeharkatuko dituen beste korridore bat planteatzeko: ezinbestekoa etorkizunari begira. Zati hori ezin da bereizi Madril-Tutera-Iruña loturatik eta epe ertain eta luzean Foru Komunitateko ardatz estrategiko nagusi bihurtu behar du, halako moldez non Lisboa-Madril-Tutera-Iruña-Frantzia ardatza Europa zeharkatzeko lehen mailako ardatz bihurtuko den.

2. I. liburukiko 109. orrialdean, hauxe dio: "8.- JARDUTEKO PROPOSAMENAK". Hauxe jarri haren orde: "8.- BURUTU BEHARREKO JARDUKETAK".

3. I. liburukiko 109. orrialdeko lehen lerroaldean hauxe ere JARRI:

"Lehen esandako sailkapen-proposamenez gain, Plan honek hauexek bilduko ditu: egungo egoeraren diagnostikoan antzeman diren beharri-zanen ondoriozko jarduteko proposamenak. Proposamenok, funtsean, hurrengo arazoak konpondu nahi dituzte Nafarroako errepide sarean: edukierakoak, zeharkako sekzioaren eskasiak, trazadura, segurtasuna eta ibilgarritasuna. Eta baita horiek konpontzeko gutxi gorabeherako kostuak eta jarduketa bakoitzari ekiteko lehentasuna ezarri ere.

Horri gagozkiolarik, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak xedapen bat landuko du hamabi hilabeteko epearen barruan eta hurrengoak hartuko ditu: Nafarroako errepideen sailkapena, zeina, gertatzen direnen aurrean,

eguneratu egingo baita bi urtez behin, eta baita sailkapen hori burutzeko erabili irizpideak ere.”

**4. I. liburukiko 109. orrialdeko hirugarren lerroaldean hauxe ere JARRI:**

“Kontserbazio arruntaren baitan, seinale bertikalak gaurkotzeko ahalegina burutuko da, hurrengoak kontuan hartuz, batez ere: ibilbide turistikoak eta errepideak zeharkatzen dituen hirigunetako erakargarri historiko eta artistikoei buruzko seinale informatiboak. Toponimiako izen ofizialak errespetatu egingo dira.

Arreta berezia emango zaio Foru Komunitatea aipatzen duen seinalea ezin hobeto mantentzeari, errepideek Komunitate honetako mugekin bat egin duten tokietan.

Era berean, errepideak iragaten baldin badira arte-, historia-, natura- edo antzeko balioak dituzten herri edo tokietatik, aipatu egin beharko dira horiek errepidearen ertzean jarriko den kartel batekin.

Hala gertatzen den tokietan, seinaleak jarriko dira hurrengoak aipatuz: turismo partzuergoak, mankomunitateak, ohiko agrupazioak, jatorrizko izendapenak, udal anitzak, osasun zentroak, toki-antolamenduari edo herritarren ekinbideei dagozkien berezitasunak, edo interes orokorreko beste batzuk.

Edonola ere, kasuan kasuko toki entitateek kartelak edo errotuluak jartzen ahalko dituzte errepide-ertzean, hurrengoak aipatuz: herriaren erakargarriak, zerbitzuak eta antzekoak. Aurreko lerroaldeetan aurreikusi den erakunde-publizitatea errepidearen zortasun-aldean jarriko da.

Plan hau onetsi eta hiru hilabeteko epean, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak, indarreko legearekin bat, ekingo dio jabari publiko eta zortasun aldeetan den entitate pribatu-tuetako publizitatea kentzeari eta dagozkion arauak onetsiko ditu horrelakorik paratu ahal izateko, bidezko denean.”

**5. I. liburukiko 109. orrialdeko laugarren lerroaldean hauxe KENDU: “handiak”.**

**6. I. liburukiko 110. orrialdeko azken lerroaldean hauxe JARRI, DAGOENAREN ORDEZ:**

“Iruñerriak programa berezia behar du, lehen esandakoen gisako jarduketak sartzeko, eta gaur egungo ingurubideek definitzen duten hiri-eskualdea hartuko du bere baitan. Iparraldeko eta Ekialdeko ingurubideak bikoizteak, Ezkabako tunela egitea, gurutzegune batzuk hobetzea eta eremu metropolitanoko hiri-zati batzuk bukatzea, eragindako udalekiko zuzeneko harremanean, dira Pro-

grama horri gehituko zaizkion proposamenetako batzuk, Iruñerriko Hirigintza Arauekin estu lotuta, beti ere.”

**7. I. liburukiko 110. orrialdeko azken lerroaldean testu hau ere JARRI:**

“Plan hau onetsi eta hiru hilabeteko epearen barruan, Departamentuak plan bat proposatuko du arriskuguneak kentzeko, eta baita hori burutzeko egutegia ere, bai 1998an, bai hurrengo urteetan, hurrengo hiru urteetan horiek kentzeko moduan. Salbuespen gisa, bost urtetara arte luza daiteke epea.”

**8. I. liburukiko 110. orrialdean beste lerroalde bat jarri, puntu beltzei buruzko erabaki-proposamenaren ondoren. Hurrengo testua GEHITU:**

“Aurreko lerroaldean aurreikusitako epe eta modu berean ekingo zaie puntu beltzei.”

**9. “Departamentuak sustatu egingo du errepide-ertzetako landaredia eta hondakinen garbiketa.”**

**10. I. liburukiko 110. orrialdean beste lerroalde bat gehitu, gasolindegiekiko hitzarmenari buruzko erabaki-proposamenaren ondotik. Testu hau ere JARRI:**

“Era berean, ahalegina egingo da, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentua lankide dela, hitzarmenak izenpetzeko Nafarroako Autopistako eta A-68 ko enpresa emakidadunekin, bidesaria ordaintzeko tokietan eta establezimenduetan bezeroen esku egon daitezen telefono iraunkorra, berezko loturarekin, eta erakundeen publizitate eta infomazioa.”

**11. I. liburukiko 110. orrialdean beste lerroalde bat gehitu. Testu hau ere JARRI:**

“Nafarroako Gobernuak bide-segurtasun eta heziketa kanpainak burutuko ditu, gidari, herritar eta umeentzako, batez ere. Baita Planak hartzen duen arloko jabari publikoa errespetatzeari buruzkoak ere.”

**12. I. liburukiko 110. orrialdean beste lerroalde bat gehitu. Testu hau ere JARRI:**

“Plan honen jarraipenaren berri emango da urtero eta informazio horren barruan sartuko dira aurreikusitako eginkizunak, aurreikusita izanik egi-teke geratu direnak eta Planean aurreikusi ez diren errepidetan egin direnak.”

**13. “Gasteiz-Urantzia-Lodosa ardatza Foru Komunitatearen interesekotzat jotzea, eskualde-interesekotzat jo ordez.”**

**14.** “Foru Komunitatearen intereseko sarean, Araba-Lizarra-Zangoza ardatza osatu, Tafalla-Zangoza eta Kanpezu-Lizarra zatia batez ere.”

**15.** Lizarratik Arabako mugara doan C-132 errepideari buruzko emendakina.

“Errepidearen trazadura hobetzeko ahalegina egingo da eta ardatz horren bitartez Gasteizko komunikazioa hobetzen saiatu.”

**16.** “Errepide Planean sartu Iruñea-Akize-Bordele autopistaren proiektua eta etorkizuneko plan-gintza eta diseinua, eta hori Nafarroako ardatz estrategikoekin lotzea.”

**17.** “a) Iruña-Logroño trazaduraren proiektu osoa burutzea.

b) Iruña-Logroño ardatza edukiera handiko errepide azkar bihurtzea.

c) Proiektuan hauek sartzea: Azketako tunela kentzea eta N-232 eta A-68 autopistarekiko lotunea, Sequeroko poligonoan den Agoncilloko zubiaren bidez.”

**18.** 1998-2005rako Nafarroako Errepideen Plan Zuzentzaileko 2. orrialdean, I. liburukian, testu hau ere JARRI:

“Zangozako saihebidetaren ondorengo obra, Onsella ibaiaren gaineko bira eta zubia barne.”

**19.** “Planak berriro ere aztertuko ditu sareko zati guztiak beharrezko zehaztasunetara egokitzeko:

- metroak
- abiadura berezia
- bide bazterren zabalera
- orografia eta ingurugiroa

– errepideak egiteko gutxieneko baldintzak ezarriko dira, eta gainera, biren zabalera eta erradioa, errepide-mota ezberdinen arabera.”

**20.** “1998-2005rako Nafarroako Errepideen Plan Zuzentzailearen dotazio ekonomikoari buruz, hurrengoak hartuko dira kontuan:

– Onetsi diren erabaki-proposamenetatik heldu diren aurreikuspen ekonomikoak ere sartuko dira eta laurteko bietako batean sartuko dira dagozkion jarduketak.

– Plan Zuzentzailearen dotazio ekonomikoa ez da ukituko Planaren indarraldian Frantziako autopista egiteko inbertsio berezietan ekin beharra gertatzen bada. Halakorik gertatuz gero, berariazko kontsignazio ekonomikoa ezarri beharko da aipatu obra berezarako.

– Nafarroako Gobernuak, errepide sare egokia izateak duen garrantzi sozial eta estrategikoa kontuan, Errepideen Plan Zuzentzailearen urteroko dotazio ekonomikoa gehitzen saiatuko da, Nafarroaren ekonomi eta aurrekontu egoerak horretarako bide ematen badu.”

**21.** “Zizur Nagusiko sarreretan, N-111 errepidearekiko gurutzegunean, gertatzen den trafikoa handia kontuan, errepide-zati horren egokitzapena aurreratzea proposatzen da, aipatu errepidea Astraina bitartean bikoizteko planaren barruan, hurrengoari jarraiki:

– Zizur-Astrain destolesketa (1. fasea: Zizur Nagusiko sarrerak) 1000 Mp:

| 1999 | 2000 | 2001 | 2002 | 2003 | 2004 | 2005 |
|------|------|------|------|------|------|------|
| 200  | 500  | 300  |      |      |      |      |

– Zizur-Astrain destolesketa (2. fasea) 2000 Mp:

| 1999 | 2000 | 2001 | 2002 | 2003 | 2004 | 2005 |
|------|------|------|------|------|------|------|
|      |      |      |      | 300  | 900  | 800” |

**22.** Jarduketan 8. puntuari aurkezturiko emendakina: Foru Komunitatearen intereseko sarea: A-15, Leitza-Donostia.

“A-15 eta Belate-Iruña-Frantziaren arteko zeharreko ardatza hobetzeko 2. fasea (2003-2005) aurreratzea.”

**23.** 8. puntuarekiko emendakina. Foru Komunitatearen intereseko sarea: Auritz-Izaba errepidea.

“Obra aurreratzea. 1999rako hastea, gutxienez.”

**24.** “Toponimiari egokitzen zaion terminologia erabiltzea, Nafarroan indarrean diren arauen arabera.”

**25.** “Toponimia euskalduna duten toki eta dermioetan terminologia erabiltzea, zuzen dagoenari egokitzeko.”

**26.** “Nafarroako Gobernuak hauxe bidaliko dizkie Parlamentari Taldeei: “Planari Jarraipena egiteko Unitateak” Nafarroako Errepideen Plan Zuzentzailearen garapena aldi-aldi aztertze-lanean ematen dituen txosten, ondorio, gomen-dio eta bestelako lanak.”

Hori guztia argitara dadin agintzen da, Erregelamenduko 112. artikulua ezarritakoa betez.

Iruñean, 1997ko abenduaren 5ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

|   |  |
|---|--|
| <b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b><br><b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b><br>Urte bat ..... 5.800 pta.<br>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa ..... 130 » .<br>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa ..... 165 » . | <b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b><br><b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b><br>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»<br>Arrieta, 12, 3<br>31002 IRUÑEA |
|---|--|